

# DATA BEREZIEN ERAGINA

## SEXU-HARREMANETAN



**Inkesten eta esperimentuen kabia.**

Ikasleak: Irati, Irene, Mariem eta Kima

Irakaslea: Junkal Gonzalez

Kategoria: DBH 3 eta 4

Ikastetxea: Elexalde BHI, Galdakao

# AURKIBIDEA

<b>1. LABURPENA.....</b>	<b>3</b>
<b>2. HELBURUA.....</b>	<b>4</b>
<b>3. DATUEN AZALPENA ETA AZTERKETA.....</b>	<b>5</b>
<b>4. EMAITZAK ETA ONDORIOAK.....</b>	<b>11</b>
<b>5. HOBEKUNTZAK ETA ZAILTASUNAK.....</b>	<b>12</b>
<b>6. BIBLIOGRAFIA.....</b>	<b>13</b>

# 1. LABURPENA

Azkenengo urteetan, haurrak ez izateko metodo ugari ditugu eta horren ondorioz jaiotze-tasak behera egin du. Hala ere, seme-alabak izaten jarraitzen dugu. Honek, galdera pare bat sorrarazi dizkigu “*Zein hilabetetan jaiotzen da ume gehien? Eta zer ikusirik ahal dute egun bereziek jaiotze-tasarekin?*”.

Galdera hauei erantzuteko, Elexaldeko BHI-ko DBH-ko ikasleei galdetu diegu ea noiz jaiotzen ziren. Emaitzekin, kalkulu bat eginez (jaiotze hilabetei 9 hilabete kenduta) gurasoak zein sasotan izaten duten harreman sexual gehien ondorioztatu dugu.

Ikaskideen jaiotza-datak aztertzean, gehienak Apiril-Maiatzean eta Urri-Azaroan jaiotzen direla ikusi dugu. Kalkulua eginez, jakin dezakegu harreman-sexual gehienak Uztail-Abuztuan eta Urtarril-Otsailean izaten direla.

Konturatu gara egun berezi batzuk daudela sasoi hauetan, esaterako, udako oporrak, urte-berriaren hasiera eta San Valentin. Gure hipotesia da, jendeak sasoi zehatz batzuetan harremanak izateko tendentzia gehiago duela eta horregatik, Apiril-Maiatzean eta Urri-Azaroan jaiotza-tasak gora egiten du.

## **Abstract**

*Nowadays, we have many methods of not having children and as a result the birth rate has decreased. However, we continue having children. This has given rise to a couple of questions: "In which month are the most children born? And are special days related to birthdays?"*

*To answer this question, we asked the secondary school students of Elexalde BHI when they were born. With the results, we have made a calculation (subtracting 9 months to the birth months) to conclude in what season do the parents have the most sexual intercourse.*

*Analyzing the birth dates of our classmates, we have seen that most of them are born in April-May and October-November. By doing the calculation, we can know that the most sexual relations are in July-August and January-February.*

*We have noticed that there are some special days during these seasons, such as summer holidays, the beginning of the new year and Valentine's Day. Our hypothesis is that people have a greater tendency to have intercourse in certain seasons and that is why the birth rate increases in April-May and October-November.*

## 2. HELBURUA

Gure ikerketen helburu nagusia da aztertzea noiz izaten diren harreman sexual gehien eta ea egun bereziek eragina duten bikoteen harremanak izateko maiztasunean.

Honetarako, lehenik ikertu behar izan dugu neska-mutil gehienak zein hilabetetan jaio diren.

Datuen bilketa egiteko, galdera batzuk prestatu genituen. Ahal genuen erantzun kopuru handiena lortzeko, klasez-klase joan ginen erantzunak orri batean apuntatzen. Horrela egitea erabaki genuen, kontziente ginelako galdetegiak emailetik bidalita, erdiak ez zuela erantzungo eta horrela erantzunak ziurtatu genitzakeela. Datu hauek, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan dauden adinekoenak dira hau da [2008-2011]-n jaiotakoak. Galdera hauek 332 ikaslek erantzun dituzte.

Hauek izan dira egindako galderak:

- Zein urtetan jaio zara?
- Zein hilabetetan jaio zara?

Hauek izan dira lortu ditugun erantzunak:

	2011	2010	2009	2008	DENAK
Urtarrila	9	7	11	5	32
Otsaila	9	10	9	6	34
Martxoa	5	8	5	3	21
Apirila	13	5	11	3	32
Maiatza	11	10	6	9	36
Ekaina	3	6	2	3	14
Uztaila	4	8	1	5	18
Abuztua	7	7	11	3	28
Iraila	4	3	7	7	21
Urria	15	3	7	12	37
Azaroa	6	5	7	5	23
Abendua	10	10	7	9	36
GUZTIRA	96	82	84	70	332

### 3. DATUEN AZALPENA ETA AZTERKETA

Lehenik, gure koadernoan bildutako datu guztiak ordenatu, antolatu eta kalkulu orri batera pasatu ditugu. Kalkulu orrian ikusi dugu Urria dela jaiotza kopuru gehien izan duen hilabetea. Ondoren, hilabete bakoitzean egon diren jaiotzak kontuan izanda, kopuruaren ehuneko atera dugu. Ikusi dugunez hamartar gehiegi genituela eta informazioa begi bistaz ulergarriagoa izateko, guztia borobildu egin dugu.

	GUZTIRA	fr	%
Urtarrila	25	0,10	10,00
Otsaila	24	0,10	9,60
Martxoa	13	0,05	5,20
Apirila	27	0,11	10,80
Maiatza	26	0,10	10,40
Ekaina	8	0,03	3,20
Uztaila	10	0,04	4,00
Abuztua	21	0,08	8,40
Iraila	18	0,07	7,20
Urria	34	0,14	13,60
Azaroa	18	0,07	7,20
Abendua	26	0,10	10,40
		1,00	100,00
GUZTIRA	250		

Max: Urria, 34 pertsonekin

Min: Ekaina, 8 pertsonekin

Mo: Urria, 34 pertsonekin

Gero, urteen arteko bilakaera aztertze eta urteen arteko ezberdintasunak ikusi eta ondorioak ateratzeko, urte bakoitza banaka aztertu dugu:

LAGINAREN AZTERKETA 2011:

<b>2011</b>				
xi	fi	Fi	hi	Hi
Urtarrila	9	9	0,09	0,09
Otsaila	9	18	0,09	0,19
Martxoa	5	23	0,05	0,24
Apirila	13	36	0,14	0,38
Maiatza	11	47	0,11	0,49
Ekaina	3	50	0,03	0,52
Uztaila	4	54	0,04	0,56
Abuztua	7	61	0,07	0,64
Iraila	4	65	0,04	0,68
Urria	15	80	0,16	0,83
Azaroa	6	86	0,06	0,90
Abendua	10	96	0,10	1,00
Guztira	96		1	

2011n, taulan adierazita dagoen moduan, urte horretako moda Urria da, Apirilak harekiko desberdintasun gutxi izanda.

Moda = Mo= Urria

LAGINAREN AZTERKETA 2010:

<b>2010</b>					
xi	fi	Fi	hi	Hi	
Urtarrila	7	7	0,09	0,09	
Otsaila	10	17	0,12	0,21	
Martxoa	8	25	0,10	0,30	
Apirila	5	30	0,06	0,37	
Maiatza	10	40	0,12	0,49	
Ekaina	6	46	0,07	0,56	
Uztaila	8	54	0,10	0,66	
Abuztua	7	61	0,09	0,74	
Iraila	3	64	0,04	0,78	
Urria	3	67	0,04	0,82	
Azaroa	5	72	0,06	0,88	
Abendua	10	82	0,12	1,00	
Guztira	82		1,00		

2010ean, berriz, hurrengo hiru hilabeteak izan dira gehien aipatu direnak edo modan gehien egon direnak emaitza kopuru berdinarekin: Otsaila, Maiatza eta Abendua.

Moda = Mo= Otsaila, Maiatza eta Abendua.

LAGINAREN AZTERKETA 2009:

2009					
xi	fi	Fi	hi	Hi	
Urtarrila	11	11	0,13	0,13	
Otsaila	9	20	0,11	0,24	
Martxoa	5	25	0,06	0,30	
Apirila	11	36	0,13	0,43	
Maiatza	6	42	0,07	0,50	
Ekaina	2	44	0,02	0,52	
Uztaila	1	45	0,01	0,54	
Abuztua	11	56	0,13	0,67	
Iraila	7	63	0,08	0,75	
Urria	7	70	0,08	0,83	
Azaroa	7	77	0,08	0,92	
Abendua	7	84	0,08	1,00	
Guztira	84		1		

2009an ere, 3 hilabeteetan jaoitza kopurua berdindu egin da, 11 pertsonekin. Hilabete horiek Urtarrila, Apirila eta Abuztua dira.

Moda = Mo= Urtarrila, Apirila eta Abuztua.



LAGINAREN AZTERKETA 2008:


<b>2008</b>				
xi	fi	Fi	hi	Hi
Urtarrila	5	5	0,07	0,07
Otsaila	6	11	0,16	0,23
Martxoa	3	14	0,20	0,43
Apirila	3	17	0,24	0,67
Maiatza	9	26	0,37	1,04
Ekaina	3	29	0,41	1,46
Uztaila	5	34	0,49	1,94
Abuztua	3	37	0,53	2,47
Iraila	7	44	0,63	3,10
Urria	12	56	0,80	3,90
Azaroa	5	61	0,87	4,77
Abendua	9	70	1,00	
Guztira	70			

2008an, desberdintasun handiarekin Urria da jende gehien jaio den hilabetea Martxoa, Apirila, Ekaina eta Abuztua oso azpian utziz.


Moda = Mo= Urria

Hemen aurretik aipatutako desberdintasunak hobetu ikus ditzakegu:


2011, 2010, 2009 eta 2008




**2011**




**2010**



**2009**



**2008**



## 4. EMAITZAK ETA ONDORIOAK

Lortutako emaitzak aztertuz konturatu gara jende gehiena Urrian eta Maiatza jaio dela. Gure azterketa bideratuta dago haurrak jaiotzea eragin zuen harreman sexuala noiz izan zen ikertzera.

Haurdunaldiari buruzko bilaketak egin ditugu eta gehiengoak bederatzi hilabete irauten dute. Hau kontuan izanda, lortutako jaiotza datei bederatzi hilabete kendu dizkiegu. Emaitza hauek, harremanak izan ziren datak dira. Horrela, erraz konturatu gara harreman horiek Otsailean eta Abuztuan izan zirela. Aztertu ditzagun data horiek. Zer data berezi dago? Interneten data hauetan dauden egun bereziak aztertu ditugu eta ikusten da Otsailean San Valentín eguna dela, hau da, “Maitasunaren eguna”, eta Abuztua oporren hilabetea dela. Hau jakinda guk ondorioztatzen duguna da, jendeak sexu harreman gehiago dituela data berezietan eta horrek eragina duela gure hazkunderan.

Lan honen laburpenean bi galdera planteatu ditugu. “Zein hilabetetan jaiotzen dira ume gehien? Eta, zerikusirik al dute egun bereziek jaiotze-tasarekin?” Erantzun ditzagun galdera hauek gure lanean oinarrituta:

1. Lehenengo galderari erantzuteko, esan dezakegu, Urria eta Maiatza direla ume gehien jaiotzen diren hilabeteak.
2. Bigarren galdera erantzunda, guk baietz uste dugu, pentsatzen dugulako Otsaila eta Abuztuak data oso berezi batzuk dituztela eta horiek eragiten dutela jaiotze-hazkunderan.

### OHARRA:

Jakindun gara, haurdunaldi guztiek ez dutela bederatzi hilabete irauten: badaude haur goiztiarrak eta beranduago jaiotzen direnak; baina guztiak 9 hilabeteko epean jaio izan balira bezala egin ditugu kalkuluak, zeren eta, hala ez balitz, kalkuluak askoz korapilatsuagoak izango lirateke eta askoz ere luzeagoa izango litzateke lan hau.

## 5. HOBEKUNTZAK ETA ZAILTASUNAK

Proiektu honek hobekuntzak izan ditzake.

Horrez gain, kontziente gara, Elexaldeko Institutuko ikasleen erantzunak bakarrik aztertu ditugula. Datu kopurua handituta, emaitza fidagarriagoa izango litzateke.

Datu murriztuen gaiarekin jarraituz, adin zehatz batzuen datuak bakarrik ditugu, 2008tik 2011rako ikasle tartea soilik aztertu dugulako.

Galdetegia egiterakoan, gela batzuetan azterketak egiten zeudenez, edota ikasle faltaren ondorioz, espero genuena baino egun batzuk gehiago behar izan ditugu datuak lortzeko.

Batetik, lan hau sakontzekotan eta hobetzekotan, kontuan izan genitzake, jaiotzeko, bederatzi hilabete baino gutxiago edo gehiago behar izan dituzten umeak. Bestetik, ehunekoak bilatu eta galdetegi gehiago prestatu, egoera honetan zenbat kide dauden jakiteko.

Gainera, gaur egun haurdunaldia prebenitzeko metodo asko daude. Orduan, izan daiteke erlazio sexual ugaritasuna konstantea izatea urte osoan zehar, baina ateratako hilabetetan jendearen umeak izateko erabakia ugaritzea.

Ikusi dugu hainbat faktore kontuan hartu ez izanak gure emaitza ez duela hain fidagarria egiten, hala ere umeen jaiotzen ugaritasuna noiz den ere aztertu dugu eta kalkulu horretan ez dugu zailtasunik izan.

Badakigu beste bide batzuk daudela umeak izateko, adibidez, “*in vitro*”, gai honi buruz hurrengo lan baten sakon daiteke.

## 6. BIBLIOGRAFIA

Matematika DBH4 (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza)

Editoriala: Anaya Haritza

Hirugarren hiruilekoko liburua

<https://www.ehu.eus/eu/web/incubadora/hasiera>